

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

Hezkuntza

Gasteizen hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketarako Udaleko Hezkuntza-Zerbitzuak ematen dituen laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2019-2020 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 14an eginiko ohiko bileran, onetsi egin dira Gasteizen hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketarako Udaleko Hezkuntza-Zerbitzuak ematen dituen laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2019-2020 ikasturtea.

Urriaren 1eko 39/2015 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, oinarri horiek argitaratzen dira guztiek jakin dezaten.

Gasteizen, 2019ko ekainaren 14an

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko jarduneko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

16. ildoak. Hezkuntza. 16. ildoaren oinarri espezifikoak – Gasteizen hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketak. 2019-2020 ikasturtea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an onartu zituen Gasteizko udaleko diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak, 2019. urterako. Oinarri orokor horiek Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, ALHAO) argitaratu ziren, 19. zenbakian, 2019ko otsailaren 13an, zehazki, eta webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones) nahiz herritarren arreta-bulegoetan begiratu daitezke. Deialdi espezifiko honetara aurkeztu nahi duten erakundeek bertara etorri beharko dute eskaerak nola eta non aurkeztu behar diren jakiteko, eta erakunde eskatzaileen baldintzak eta betebeharrak, diru-laguntzak justifikatzeko modua, formularioak eta abar ezagutzeko.

1. Diru-laguntzen ildoak

16. ildoak. 2019-2020 ikasturtean Gasteizen hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako hezkuntza-jarduketak garatzera zuzentzen diren elkarteetarako diru-laguntzak.

2. Sarrera

Gasteizko hiriak, Hiri Hezitzaile den aldetik, badu asmo osoz gauzatu nahi duen helburu bat: bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntza, sustapena eta garapena. Ildo horretatik, hezkuntza inklusiboaren esparruko jardueren bidez, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra, hezkuntza inklusiboak pertsona guztiek, aukera-berdintasunez, ekitatez eta bidezkoa

denez, kalitatezko hezkuntza eskura izatea bermatu behar duela ulertuta; mehatxu handienak jasaten dituzten kolektiboei erreparatuko die bereziki hezkuntza horrek, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboei.

Diru-laguntzen deialdi hau testuinguru horretan biltzen da, hain zuzen.

3. Deialdiaren xedea

Hauxe da diru-laguntzen deialdi honen xedea: hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonekin lan egiten duten elkarteei laguntzea, bai bazkideei edota horien senitartekoei zuzendutako hezkuntza-jarduketak antolatzen eta kudeatzen, bai ikastetxeetako ikasleei edota horien familiei edo irakasleei zuzendutako jarduketak antolatzen eta kudeatzen; betiere, Gasteizen esparruan eta 2019-2020 ikasturtean pertsona horiek eskolan edo gizartean integratzeko bidea sustatu behar dute jarduketak horiek.

4. Erakunde onuradunak

Deialdi hauek hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak artatzen dituzten elkarteei zuzentzen zaizkie berariaz; irabazi-asmorik gabeko elkarte izan behar dute elkarte horiek, eta beren egoitza soziala Gasteizen izan behar dute.

5. Baliabide ekonomikoak

Gehienez ere 19.233,85 euroko kreditua zuzendu du deialdi honetara Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Sailak (Hezkuntza Zerbitzua), 2019-2020 ikasturteari begira. Honela banatzen da zenbateko hori:

- 7.693,52 euroko kreditua gehienez, 2019ko irailaren 2tik abenduaren 31ra bitarteko aldirako, 2019rako udal-aurrekontuan Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Sailari dagokion 2319.03.3261.48175 kontu-sailaren kargura.

- 11.540,33 euroko kreditua gehienez, 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 19ra bitarteko aldirako, betiere 2020ko udal-aurrekontuan kreditu egokia eta aski badago.

6. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

2019ko irailaren 2tik 2020ko ekainaren 19 bitartean garatzen diren hezkuntza-jarduerak haue-
tarako emango dira diru-laguntzak:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzat hezkuntzaren esparruan eta gizartean integratzeko lagungarri izango diren jarduerak.

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen trebetasun sozialak, autoestimua eta au-
tonomia garatzen dituzten prestakuntza-jarduerak.

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren eta gazteen gurasoei zuzendutako jarduerak,
elkarri laguntzeko bideak eta seme-alaben zainketarako etengabeko prestakuntza sustatzen
dituztenak.

- Eskolan eta gizartean integrazioak duen garrantziaz ikasleak, familiak eta irakasleak
sentiberatzeko edota integrazio hori sustatzeko jarduerak.

Deialdi honetatik kanpo daude:

- Gasteizko Udalak horientzat berariaz egindako deialdiekin lotutako jarduerak.

- Elkartearen ekipamendu-, funtzionamendu- eta mantentze-gastuak.

- Jarduera garatzeko beharrezkoa den ekipamendua, hala nola instalazioak, altzariak, la-
nabes eta tresnak, arropa... Dena den, erabilitako material suntsikorren ehuneko 50era arte
sar daiteke.

- Ekitaldi gastronomikoak.

- Lehiaketak eta sariketak.

7. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea eta tokia

7.1. Aurkezteko epea: eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea irekita egongo da deialdi honen oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2019ko irailaren 30 arte, azken hori barne. Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

7.2. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko lekua: eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkez daitezke, bai eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan eta legez aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ildotik.

8. Aurkeztu beharreko dokumentuak

Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Elkarteko presidenteak sinatutako diru-laguntzaren eskabidea, Gasteizko Udalak 2019rako emandako diru-laguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorretako ereduaren arabera (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zenbakia.); webgune honetan ere eskura daitezke: www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones.

- Eskabide berbera udaleko beste sail edo zerbitzu batzuetako deialdietara aurkeztu ez dela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena (1. eranskina, oinarri espezifiko hauetan).

- Jarduera edo jarduerak zuzentzen zaizkien pertsona kopurua guztira, elkarteko presidentek sinatuta. Azken kopuru horretan, jarduera zuzentzen zaien elkarteko kideen edota, hala badagokio, gurasoen kopurua zehaztuko da; era berean, jarduera zuzentzen zaien ikasleen kopurua, eta, hala badagokio, jarduera zuzentzen zaien gurasoen eta irakasleen kopurura ere zehaztuko da (2. eranskina, oinarri espezifiko hauetan).

- Diru-laguntzen xede diren jardueren zerrenda, kostua, horietako bakoitzeko parte-hartzaile mota, kopurua eta dagokien epea (3. eranskina, oinarri espezifiko hauetan). Eranskin horrekin batera, jarduerari buruzko proiektua edo azalpen laburra ere emango da, eta honako hauek jasoko dira agiri horretan: jarduera bakoitzaren helburuak, deskribapena, zer kolektibori zuzentzen zaien, aurreikuspenen arabera zenbat lagunek parte hartuko duten, eta non eta noiz egingo den.

- Deialdi honen xede diren jarduerak garatzeko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuei diru-laguntza eskatu dieten elkarrekin eta, hala dagokionean, diru-laguntza eman dietenek egoera horren berri eman behar dute, eta, hala badagokio, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ere azalduko dute (4. eranskina, oinarri espezifiko hauetan).

Hezkuntza Zerbitzuan diru-laguntza lehen aldiz eskatzen duten elkarten kasuan, edota datuak aldatu badira, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Hezkuntza Zerbitzuan aurkeztutako azken eskabidearekiko aldatu egin bada elkartearen ordezkari den pertsona, eskabidea sinatzen duen pertsonak ordezkatzeko ahalordea duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du, eta eskabidea egiten duen elkartearen legeko ordezkaria den pertsona fisikoaren NANaren fotokopia ere aurkeztu beharko da.

- Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistro Orokorrean elkartea legez eratu dela egiaztatzen duten agiriak.

- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

- Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, elkarrekin izan behar duela titularra.

9. Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honen barneko diru-laguntza bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Nolanahi ere, diru-laguntzen bidez eta beste diru-iturri batzuetatik lortzen den finantzaketaren zenbatekoak ezin du gainditu, inoiz ere, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa.

10. Diru-laguntza emateko prozedura

Hainbanaketa-erregimenean emango da diru-laguntza.

Eskabideak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskabide horiek izapidetzeko onartu ondoren, txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri espezifiko hauetan zehaztutako irizpideekin bat etorrita.

Xede horretarako, kide anitzeko organo eskuduna eratuko da, eskabideak eta diru-laguntzak emateko proposamena balioesteko. Hezkuntza Zerbitzuko buruak eta Hezkuntza Zerbitzuko Hezkuntza Koordinazioko Unitateko bi teknikarik osatuko dute organo hori.

Halaber, Zerbitzuko Administrazio Orokorreko goi-mailako teknikaria izango da instrukzio-organoa, eta hark egingo ditu, ofizioz, diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamenerako kon-tuan hartuko diren datuak zehazteko, ezagutze eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko du diru-laguntzak emango diren, huraxe baita organo eskuduna.

11. Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak

Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa atal honetan aurreikusitako banaketa-sistema aplika-tuz zehaztuko da, honako irizpide hauen arabera:

a) Aurrekontu osoaren ehuneko 50 onartutako elkarleen artean banatuko da, zati berdinetan.

b) Gainerakoa, ehuneko 50, aurreikuspenen arabera elkarrekin antolatutako hezkuntza-jar-dueretan parte hartuko duten pertsonen kopuruaren arabera banatuko da, jarduera horiek elkarteko kideei edota horien senitartekoei, ikastetxeetako ikasleei edota horien senitartekoei edo irakasleei zuzentzen zaizkienean.

Deialdi honen esparruan, elkarrekin bakoitzari 7.000,00 euro eman ahal izango zaizkio gehienez ere.

Atal honetan zehaztutako irizpideak aplikatu ondoren, eta sobera gelditutako kreditua ba-dago, a) atalera zuzendutako kreditua handitzeko erabiliko da.

12. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Gasteizko Udalak 2019rako emandako diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera jokatu da (www.vitoria-gasteiz.org udal-webgunean, he-rritarren arreta-bulegoetan eta 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn, 19. zenbakian, eskura daitezke).

13. Diru-laguntzen ordainketa eta justifikatzeko modua

13.1. Diru-laguntzaren ordainketa:

Diru-laguntzaren zenbatekoa bi ordainketaren bidez ordainduko du udalak:

— Lehenengoa, 2019ko aurrekontuaren kargura, 2019ko irailaren 2tik abenduaren 31ra bi-tarteko aldirako emandako diru-laguntzaren atalean.

— Bigarrena, 2020ko aurrekontuaren kargura, 2020rako udal-aurrekontuan xede horretarako kreditu egokia eta aski baden kontuan hartuta, betiere, 2020ko urtarrilaren 1etik ekainaren 19ra bitarteko aldirako emandako diru-laguntzaren atalean.

13.2. Diru-laguntza justifikatzeko epea: 2019ko irailetik abendura bitarteko aldirako eta 2020ko urtarriletik ekainera bitarteko aldirako emandako diru-laguntzaren justifikazioa batera egingo da, aldi bakarrean. Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2020ko irailaren 18an amaituko da.

13.3. Diru-laguntzaren justifikaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte elkarte onuradunek:

— Garatutako proiektuari buruzko azalpen-memoria, lortutako emaitzen berri ere emanek. Memorian parte-hartzeari buruz ematen diren datuei dagokienez, jardueretan parte hartu dutenek agertu behar dute, sexuaren, neska-mutikoen kopuruaren eta emakumeen eta gizonen kopuruaren arabera bereizita.

— Ikasketen, programen, argitalpenen, iragarki-kartelen eta, oro har, diru-laguntzaren xede izan den jarduera gauzatzeko landutako agiri grafiko eta idatzien aleak.

— Jardueren kostuaren justifikazio-memoria, honako hauek jasotzen dituen:

1. Proiektua edo jarduera zenbait erakunde publikok edo pribatuk finantzatu badute, edota baliabide propioekin finantzatu bada, justifikatu egin beharko da, eta kostu osoa egiaztatu beharko da. Kasu horretan, amaierako justifikazioarekin batera, adierazpen bat aurkeztu beharko da, diruz lagundutako proiektuari egozten zaizkion gastu guztien zerrenda (izenez adierazita) jasoz (oinarri orokorretako 1-J eranskina).

2. Egindako gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, erakunde hartzekoduna, zenbatekoa, igorpen-data eta ordainketa identifikatuta. Horretarako, erakunde onuradunak koadro bat aurkeztu beharko du, emandako diru-laguntzari dagozkion fakturak kontzeptuen arabera sailkatuta zehaztuta dituen (oinarri orokorretako 2-J eranskina).

3. Diru-sarreraren eta gastuen balantzea (oinarri orokorretako 3-J eranskina).

4. Langileen gastuak nominaren bidez eta erakunde edo pertsona onuradunaren konturako Gizarte Segurantzako TC2 bidez justifikatuko dira. Nominekin eta TC agiriekin batera, gastua diruz lagundutako jarduerari dagokiola erakusten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, denbora eta egotzitako kopuruak ere zehaztuz (oinarri orokorretako 4-J eranskina).

Proiektua garatzeko soldatapeko langilerik ez izanez gero, egoera hori egiaztatzen duen zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

5. Diruz lagundutako jarduerari dagozkion fakturak, jatorrizkoak, eta faktura eta ordainagiri horiek aurreikusitako helburua edo xedea gauzatzearen ondorio direla erakusten duten ziurtagiriak, bai eta horiek eskuragarri daudela erakusten duten agiriak ere (oinarri orokorretako 5-J eranskina).

Jarduerak beste bide batetik egiaztatu ezin direnean soilik onartuko dira hartze-agiriak. Hartze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da izan enpresaburua edo profesionala izan; bestela, hala balitz, dagokion faktura egin eta aurkeztu beharra izango bailuke. Hartze-agiriak honako datu hauek izan behar ditu:

a) Jaulkitzailearen eta erakunde hartzailearen izen-abizenak, IFZ eta helbidea.

b) Eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.

c) PFEZen atxikipena (dagokion Zerga Agentzian egineko atxikipen horren diru-sarrera erantsi behar da).

d) Lekua, data eta hartzailearen sinadura.

6. Aplikatu gabeko soberakinak izan bada, zenbateko horren itzulketari dagokion ordainketa-gutuna.

14. Elkarte onuradunaren betebeharrak

Deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradun diren elkarteek honako betebeharrak hauek dituzte:

— Diruz lagundutako jarduerak eragin ditzakeen arriskuen ardura hartzea eta, hala badagokio, aseguru egokia hitzartzea.

— Diruz lagundutako proiektuak irisgarriak diren lokal edo espazioetan egingo dira, abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, xedatzen duenarekin bat etorrira (EHAA, 1997ko abenduaren 24koa); eta, horrez gain, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri-inguruen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzen buruzkoak (EHAA, 2000ko ekainaren 12koa), garatutako arau teknikoak bete beharko dira.

— Diruz lagundutako jarduerak eta proiektuak liburuxken, kartelen, buletinaren eta blog elektronikoaren bidez nahiz oro har herritarrei zuzendutako beste edozein euskarriaren bidez zabaltzean, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, eta hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzen direla bermatu beharko da. Baldintza hori betetzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da. Betebehar horren jarraipena egingo da, elkarre onuradunak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuz.

— Sexu Delitugileen Erregistro Orokorrean deliturik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria: urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, Adingabearen Babes Juridikoarenak, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein batean aldatzen dituenak (haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak, uztailaren 28koa, aldatu zuen) eta Boluntariotzari buruzko 45/2015 Legeak, urriaren 14koa, haxe xedatzen dute: normalean adingabeekin egotea eskatzen duten lanbide, ofizio eta ekintzetan sarbidea izateko baldintza izango da epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik zigorrik jaso ez izana. Horretarako, diru-laguntzaren onuradun izan diren erakundeek jarduera horiek gauzatzeko kontratatutako langileei zera eskatuko diete: Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiaren ezezko ziurtagiria, Erregistro horrek berak emana. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, ziurtagiri horrez gain, beren nazionalitateari dagokien herrialdeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ezezko ziurtagiri horiek aurkezteko eskatu ahal izango die udalak erakunde onuradunei edozein unetan.

15. Informazioa eta aholkularitza

Deialdi honen esparruan diru-laguntza eskatzeko interesa duten elkarteei informazioa eta aholkua emango die Hezkuntza Zerbitzuak. Argibide-eskaerak telefono-zenbaki hauetara deituz egin daitezke: 945.161.100, 6547 luzapena (Apolonia Vicente) edo 945.161.100, 6546 luzapena (Itziar Fernández de Mendiola); eta helbide elektroniko hauek ere erabili daitezke xede horretarako: avicente@vitoria-gasteiz.org edo ifmendiola@vitoria-gasteiz.org.

16. Itzultzea

Jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli behar badira, Kutxabankeko udal-kontu honetan egingo dira: ES03 2095 0611 03 1090952416; ondoren, diru-sarreraren egiaztatzea aurkeztuko dute Hezkuntza Zerbitzuan.



VITORIA-GASTEIZEN HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN
PERTSONENTZAKO ELKARTEEK ANTOLATUTAKO HEZKUNTZA-
JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

1. ERANSKINA

ABIZENAK:

IZENA:

NAN:

ELKARTEAREN IZENA:

ELKARTEAN DUEN KARGUA:

IFZ:

TELEFONOA:

HELBIDEA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

EUSKO JAURLARITZAKO ELKARTEEN ERREGISTRO OROKORREAN INSKRIBATUTAKO DATA:

Erantzukizunez **AITORTZEN DU**, eta Vitoria-Gasteizko hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen arreta ematea xede duten elkarteei bideratutako Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzen deialdirako, **ordezkatzeko duen elkarteak** ez duela ekintza berdinetarako dirulaguntzaren eskaerarik egin Udaleko beste Sail edo Zerbitzu batean.

Vitoria-Gasteizen,

(Sinadura eta zigilua)

Sinatu aurretik irakurri arretaz datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa
Antes de firmar lea atentamente la información relativa al tratamiento de los datos personales

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonentzako lan egiten duten elkarteek aurkeztutako eskaerak eta bestelako dokumentazioa izapidetzea eta diru-laguntzak ematea 39/2015 Legeari, Dirulaguntzen Lege Orokorriari eta indarrean dauden gainontzeko xedapenei jarraiki. <i>Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada por las Asociaciones dedicadas a la atención de personas con necesidades educativas especiales de Vitoria-Gasteiz y tramitar los procedimientos de concesión de subvenciones destinadas a las mismas de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>



VITORIA-GASTEIZEN HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN
PERTSONENTZAKO ELKARTEEK ANTOLATUTAKO HEZKUNTZA
JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

2.ERANSKINA

AURREIKUSITAKO PARTE-HARTZEARI BURUZKO DATUAK

ABIZENAK

IZENA

NAN

ELKARTEAREN IZENA

IFZ

ELKARTEAN DUEN KARGUA

Erantzukizunez **AITORTZEN DU** honako hauek direla 2019-2020 ikasturterako proiektuan aurreikusitako parte-hartzeari buruzko datuak.

Elkartea :

Bazkideak

Senideak

Ikastetxea:

Ikasleak

Amak/Aitak

Irakasleak

GUZTIRA:

Vitoria-Gasteizen

(Sinadura eta zigilua)

Sinatu aurretik irakurri arretaz datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa
Antes de firmar lea atentamente la información relativa al tratamiento de los datos personales

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Responsable del tratamiento	
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Contacto del Responsable del tratamiento	
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Contacto de la Delegada de Protección de Datos	
Tratamenduaren xedeak	Vitoria-Gasteizko hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonentzako lan egiten duten elkarrekin aurkeztutako eskaerak eta bestelako dokumentazioa izapidetzea eta diru-laguntzak ematea 39/2015 Legeari, Dirulaguntzen Lege Orokorriari eta indarrean dauden gainontzeko xedapenei jarraiki.
Finalidad del tratamiento	Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada por las Asociaciones dedicadas a la atención de personas con necesidades educativas especiales de Vitoria-Gasteiz y tramitar los procedimientos de concesión de subvenciones destinadas a las mismas de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
Legitimación o base jurídica del tratamiento	Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.
Hartzaileak	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzenean lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere.
Personas o entidades destinatarias	Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.
Plazo de conservación	Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.
Derechos de las personas	Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

VITORIA-GASTEIZEN HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO
ELKARTEEK ANTOLATUTAKO HEZKUNTZA- JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA
DEIALDIA

3. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA ESKAERAREN XEDE DIREN EKINTZEN ZERRENDIA

EKINTZA	PARTE- HARTZAILEEN KOPURUA	JARDUERAREN KOSTUA	DATA	TOKIA
GUZTIRA				

Vitoria-Gasteizen

Sinadura eta zigilua

Sinatu aurretik irakurri arretaz datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa
Antes de firmar lea atentamente la información relativa al tratamiento de los datos personales

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkariaren kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonentzako lan egiten duten elkarrekin aurkeztutako eskaerak eta bestelako dokumentazioa izapidetzea eta diru-laguntzak ematea 39/2015 Legeari, Dirulaguntzen Lege Orokorrari eta indarrean dauden gainontzeko xedapenei jarraiki. <i>Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada por las Asociaciones dedicadas a la atención de personas con necesidades educativas especiales de Vitoria-Gasteiz y tramitar los procedimientos de concesión de subvenciones destinadas a las mismas de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	<i>Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.</i> <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>



VITORIA-GASTEIZEN HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN
PERTSONENTZAKO ELKARTEEK ANTOLATUTAKO HEZKUNTZA-
JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

4. ERANSKINA

ABIZENAK

IZENA NAN:

ELKARTEAREN IZENA IFZ

ELKARTEAN DUEN KARGUA:

Erantzukizunez **AITORTZEN DU** hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonak artatzea xede duten elkarteei bideratutako diru-laguntzen deialdiaren esparruan dirulaguntza eskatu duten ekintzak edo jarduerak egiteko jarraian adierazitako erakunde publiko edo pribatuaren bidez eskatu dira (eta, hala badagokio, lortu dira) diru-laguntza hauek.

ZBK	ENTITATEA	ESKATU DEN ZENBATEKOA	ESKURATU DEN ZENBATEKOA	DATA
GUZTIRA				

Vitoria-Gasteizen:

Presidentea
(Sinadura eta zigilua)

Sinatu aurretik irakurri arretaz datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa
Antes de firmar lea atentamente la información relativa al tratamiento de los datos personales

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonentzako lan egiten duten elkarteek aurkeztutako eskaerak eta bestelako dokumentazioa izapidetzea eta diru-laguntzak ematea 39/2015 Legeari, Dirulaguntzen Lege Orokorriari eta indarrean dauden gainontzeko xedapenei jarraiki. <i>Gestionar las solicitudes, así como la documentación presentada por las Asociaciones dedicadas a la atención de personas con necesidades educativas especiales de Vitoria-Gasteiz y tramitar los procedimientos de concesión de subvenciones destinadas a las mismas de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones vigentes.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	<i>Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOko 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du heburu zehatz bati edo gehiagori begira.</i> <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: La persona interesada dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Personas o entidades destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunika dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litekeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>